



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 16a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetzen duena. Sergio Sayas López jaunak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erretira dezan uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak. Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro ere ekin diezaion Tuterako katedraleko Judizioaren Atea zaharberritzeari. Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legegintzaren eta antolamenduaren arloetan daukan autonomia balia dezan, LOMCE Nafarroan aplikatzeak irakaskuntza publikorako, ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat dakartzan ondorio negatiboak minimizatzeko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna adierazten baitizkie O Porriñoko tren istripuan hil direnen familiei. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak adierazten baitizkie Iraken hil den soldaduaaren familiartekoei eta lankideei, eta zaurituak lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere ondoeza agertzen baitu zenbait foru legeren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioak ebazteko denbora luzeegia behar izateagatik. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak azkenik egin ez zen Irudi Medikoaren Zentroaren proiektuari dagozkion 300.000 euro, gehi interesak, itzultzeko erreklamazioari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, baja hartzea eragiten duten laneko istripuen tasak Foru Komunitatean gora egiteari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresak Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko klusterretan sartzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (14. or.).
- Galdera, asilo-eskatzailen etorrera azkartzeko zuzemenei buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (14. or.).
- Galdera, azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- Galdera, martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).
- Galdera, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Konstituzio Auzitegiak 16/2015 Foru Legetik baliogabetu ez dituen artikulua garatzeko eta betetzeko egutegiari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, 5/2010 Foru Legea garatu edo/eta aldatzeari, bere betetze-mailari eta egutegiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (17. or.).
- Galdera, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen betetze-mailari eta egutegiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Beriango ikastetxe publikoaren eraikinaren egoerari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, ospitaleko hezkuntza-arretan ikasturtea hasteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Tuterako Udalaren Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Ederbidea izeneko proiektuari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen buruzkoa. Galdera idatzi bihurtzea (22. or.).
- Galdera, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, enplegu agentzien hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2016ko eztabaida dela-eta (26. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Sergio Sayas López jaunak Foru Lege proposamena aurkeztu du, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetzen duena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea aurreko legegintzaldia amaitzear zegoela onetsi zen.

Legearen helburua ez zen izan Nafarroako polizien egoera hobetzea; izan ere, legea presaka onetsi zen, egitekoak ziren hauteskundeei begira atsegin eman nahi zitzaielako lehenbailehen kolektibo jakin batzuei. Hartara, pitzadura handi bat ireki zen Foruzaingoko kideen artean, eta Gobernuaren eta sindikatuen arteko ohiko negoziazioa Parlamentura ekarri zen, kasuko mahaira eramanez.

Denborak frogatu du lege-aldaketa hori berealdiko akatsa izan zela eta gatazka etengabea baizik ekarri ez duela ekarri. Gainera, Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumonten hitzetan, “nabarmen hobetu daiteke”.

Lege-aldaketa horren alde bozkatu zuten taldeek ere ezin dute gaur defendatu.

Hori dela-eta, foru legea indargabetzen duen proposamen hau aurkeztu dugu, elkarrizketari bidea eman eta berritik hastearren. Eztabaida lasai eta zentzudun bat egin nahi dugu eduki nahi dugun poliziari buruz eta polizia antolatzeke hari baliabideak eta bitartekoak emateko modurik onenari buruz.

Eztabaida hori denon artean egin behar dugu, indar politiko eta sindikalen artean egin behar dugu, poliziekin eta Nafarroako Gobernuarekin.

Halatan, lege proposamen honek Nafarroako Gobernuari agintzen dio proiektu berri bat presta dezan, hau indarrean sartzen denetik sei hilabeteke epean, gure polizia hobetzeko benetan balioko duena eta alderdi politikoaren eta profesionalen arteko kontsentsurik handiena eraginen duena.

Proposamen honen oinarrian, beraz, elkarrizketarako asmoa dago eta Foruzaingoa zatitzeko eta Foruzaingoaren egoera okertzeko soilik balio izan duen erreforma bati denon artean alternatibak bilatzeko ere bai.

Artikulu bakarra. Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetzen da.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkeztuko du Parlamentuan, foru lege hau indarrean sartzetik sei hilabeteko epean.

Azken xedapena

1. Apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea indargabetuta gelditzen denean, erabateko indarra izanen du Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak; alegia, orain indargabetzen den legeak egindako aldaketaren aurreko bertsioak.

2. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erretira dezan uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak.

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita erretira dezan uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozio hau aurkezten dute, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua onetsi berri du, zeinaren bidez arautzen baitira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak, "errebalidak" izenarekin ezagutzen direnak. Errege dekretu horrek badakar adituek eta hezkuntza-komunitateak neurri handian gai-

tzesten dituzten alderdietako bat garatzea, prestakuntza arloan herritarrentzat ondorio oso kaltegarriak baititu. Kongresuak aurreko legegintzaldian (2016ko apirilaren 5eko saioan, hain zuzen) baztertu zuen LOMCE izeneko legearen barnean dago.

Gure Foru Komunitatean, hezkuntza arloko ia ahots guztiak iritzi berekoak izan dira, eta azken ebaluazio horien ezarpena gaitzetsi dute. Horren adibide da "ADI" Nafarroako Institutu Zuzendarien Elkarteak, estatu osoan dagoen kritika baten berri eman duena.

Horregatik, egungo testuinguru politikoan, non Kongresuko indar guztiak adierazi baitute gutxienez LOMCEren puntu eztabaidatu horren garapena eteteko asmoa dutela, errege dekretu hori argitaratzea (eta, gainera, uda erdian egitea), zentzugabekeria ez ezik, jarduneko gobernuaren jarduketa bidegabea ere bada.

Horrenbestez, azken ebaluazio proba horien aurka gaude, honako arrazoi hauengatik:

a) DBHko eta Batxilergoko ikasleen titulazioa erabakitzen dute, ebaluazio jarraituaren bidez lortutako emaitza akademikoak kontuan hartu gabe. Probetako emaitza negatiboek etapa bakoitzean egindako urteak inolako baliorik gabe uztea eragiten dute, eta ikasleek DBHko lau mailetan eta Batxilergoko bi mailetan egiten dituzten ahalegina eta errendimendua deuseztatzen dituzte.

b) Alde horretatik, hainbat urtetan ikasi eta kalifikazio positiboak eskuratu ondoren ikasleak azterketa bakar batean dena jokoan jartzera behartzea onartezina da bidezko ebaluazio baten ikuspuntutik, zalantzarik gabe; eta burugabekeria ere bada, ikuspuntu pedagogikotik. Gainera, ikaskuntza-

arazoak edo, besterik gabe, oroimenezkoa ez den ikaskuntza-estiloa duten ikasleak neurri handiagotan kaltetzen ditu.

c) Horren ondorioz, eskola goiz uzten dutenen kopurua gehituko dute, eta goiz uzte hori, nazioarteko adierazle guztien arabera, Espainiako hezkuntza-sistemaren gaitz nagusietako bat da. Bereziki larria da DBHren kasuan, etapa horri dagokion oinarrizko eta gutxieneko titulazioa lortzea eragozten baitute. Horrek herritarretako batzuk hezkuntza bazterkeriara eta, beraz, gizarte bazterkeriara hurbiltzea eragiten du. Parlamentutalde honen ustez, Estatuak titulazio hori bermatu behar die pertsona guztiei, hori lortzeko eragozpen bidegaberik jarri beharrean. Izan ere, DBH gaintitu bai baina azken ebaluazioak gaintitzen ez dituzten ikasleak jada ezin izango dira zuzenean sartu ezta Lanbide Heziketako erdi-maila batera ere, eta beharbada oinarrizko LH ikastera behartuta ikusiko dute beren burua. Prestakuntza ibilbide horren balioak eta konfigurazioak ikasle horiek hezkuntza-sisteman egoten jarraitzea eta, beraz, lan-merkatuan sartzea, eragotziko dute, lan-merkatuak gero eta lanbide kualifikazio handiagoa duten profesionalak eskatzen baititu.

d) Oztopen etengabeko lasterketa gisa ulertzen dute hezkuntza, eta bai irakaskuntza metodologia bera bai ikasleen ahalegina proba horietan ebaluatuko diren alderdietarantz bideratzen dituzte, prestakuntzan dauden pertsonen garapen integrala kontuan hartu gabe.

e) Alde batetik, irakasleen irizpidea ia sinesgarritasunik gabe uztea eta, beste aldetik, irakaskuntzako profesionalen zereginarekiko begirunerik eta

konfiantzarik eza agertuz jokatzeko dakarte. Horrek motibazioa galtzea eta lanarekin dituzten ondoeza eta gogogabetasuna areagotzea ekar dezake.

f) Proba horien emaitzak jendaurrean jartzeko aukera dagoenez –LOMCEk horretarako aukera ematen baitu–, ikastetxeen artean sailkapenak ezartzea sustatu, eta lehen eta bigarren mailako eskolak egotea bultzatuko dute –berriro ere bidegabeki– (ez baitute kontuan hartuko hezkuntza-ekintzaren testuingurua). Horrela, gizarte demokratikoetako hezkuntzaren printzipio berdintzailea urratzen da, eta alde sozialak eta pertsonalak gehitzen dira.

g) Amaitzeko, behin ikasturtea abiarazi ondoren, bai hezkuntzako profesionalak bai ikasleek aurre egin beharko diete, ikasturte honen amaieran, haientzat erabat ezezagunak diren proba batzuei, nahiz eta ez duten inolako aukerarik izan urteko programazioan gehitzeko ikasleei errebalidatzen horiek gaintitzen lagundu liezaieketen elementuak.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeetako foru parlamentariak ondoko erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ebaluazioak arautzen dituen uztailaren 29ko 310/2016 Errege Dekretua kendu dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 5ean

Foru parlamentariak: Teresa Sáez Barrao eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak.

Asko izan dira hainbat esparrutan (estatua eta autonomia erkidegoak) aurkeztu diren ekimenak, espetxeetako osasun-zerbitzuen eskumena transferitzea eskatu dutenak. Arrazoi nagusia preso daudenei ematen zaien osasun-zerbitzuaren kalitatea hobetzea da.

Espetxeko osasun-sistemak ez dauka zerikusirik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ditugun laguntza- eta kalitate-estandarrekin, bai baliabideen aldetik bai profesionalen prestakuntzaren aldetik.

Nafarroan jada pausoren bat eman zen bide horretan; izan ere, pazienteen historia klinikoa espetxetik ikus daiteke, eta O-NOZeko langileek osasun mentaleko kontsultak egiten dituzte presoekin.

Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen seigarren xedapen gehigarriak espetxeetako osasun-zerbitzuak Osasun Sistema Nazionalan txertatzea eta Erkidegoei eskumen hori transferitzea aurreikusten du.

Negoiazio politiko baten ondoren, 2011n Euskal Autonomia Erkidegoan dauden espetxeetako osasun-laguntzaren eskumena Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari transferitu zitzaion, eta horrek hobekuntza eztabaidaezina ekarri zuen preso zeudenen osasun-laguntzan. Gainera, ez dio inola ere eragin Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen funtzionamenduari.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala abian jar ditzan negoziazio egokiak Espainiako Gobernuarekin, Foru Komunitateak bere gain hartze aldera espetxeko osasun-laguntzaren arloko eskumenak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen seigarren xedapen gehigarria aplikatuta.

Iruñean, 2016ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berriro ere ekin diezaion Tuterako katedraleko Judizioaren Atea zaharberritzeari.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita berriro ere ekin diezaion Tuterako katedraleko Judizioaren Atea zaharberritzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroak ondare historiko handia eta oparoa dauka, eta guztioi dagokigu hori zaintzea: bai Nafarroako Gobernuari bai Parlamentuari, Nafarroako herritarrak ahaztu gabe. Nafarroako eraikin historiko nabarmenen artean Tuterako katedrala dago. Izan ere, gure Foru Komunitatean XIX. mendean monumentu nazionala deklaratu zen lehenengoetako bat izan zen.

Vianako Printzea Erakundeak 2012an prestatutako argitalpen zientifiko batean adierazten zen Tuterako katedraleko mendebaldeko atea edo Judizioaren Atea estatuko gotikoko infernu-agertoki handienetako eta osatuenetako bat dela. Azterlan horrek ondorioztatzen zuen asmo handiko programa ikonografiko paregabea zela Espainiako gotikoko multzo osoan, haren dobelen ugaritasunagatik eta garrantziagatik.

Arkitektura monumentu hori oso garrantzitsua denez eta, Nafarroako Gobernuak eta Vianako Printzea Erakundeko txosten teknikoek adierazi bezala, zaharberritze premia larria zegoenez, haren zaharberritze lanak abiarazi ziren.

Azken egunotan zaharberritze lanen jarraitutasunari buruz Nafarroako Gobernuak berak sorraziti dituen zalantzak ikusita, gogorarazi nahi dugu erabakia Nafarroako Gobernuaren, Tuterako Udalen eta Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzaren artean zaharberritze lanen protokoloa sinatzeko unean, hau da, 2015eko martxoaren 5ean, hartu zela.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen da berriro ere ekin diezaion Tuterako katedraleko Judizioaren Ateko zaharberritzeari eta agindutako faseak bete ditzan.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2017rako hartutako aurrekontu-konpromisoak bete ditzan.

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legegintzaren eta antolamenduaren arloetan daukan autonomia balia dezan, LOMCE Nafarroan aplikatzeak irakaskuntza publikorako, ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat dakartzan ondorio negatiboak minimizatzeke.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legegintzaren eta antolamenduaren arloetan daukan autonomia balia dezan, LOMCE Nafarroan aplikatzeak irakaskuntza publikorako, ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat dakartzan ondorio negatiboak minimizatzeke.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

LOMCEren garapenak eta aplikazioa espero ziren ondorio negatiboak sortzen ari dira bai Irakaskuntzako sistema publikoan bai herritarren hezkuntzaren kalitatean bai etorkizuneko gizartearen eratzean. Lege horren aplikazioarekin ezarritako aldaketek derrigorrezko hezkuntzaren izaera ulerkor eta berdintzailearen balioa gutxitzen dute, eta hain ohikoak ez diren gaitasunak eta interesak dituzten ikasleak eta sozioekonomikoki kaltetuen diren sektoreak derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzara sartzea eragozten dute. Horrez gain, enpresa pribatuak zein gizarte-sektore elitistek ikasleak hautatzeko eta curriculum eta antolaketa erabakiak zenbait interesen arabera (interes orokorri eta etorkizuneko gizarte bidezkoago eta kohesio-natuago baten eratzeari jarraitzen ez dietenak)

hartzeko duten ahalmena indartzen dute, eta hezkuntzaren pribatizazioa sustatzen dute.

Asko dira lege aurreproiektua aurkeztu zenetik eta onetsi zenetik Izquierda Unidak Diputatuen Kongresuan eta Izquierda-Ezkerrak Nafarroako Parlamentuan aurkeztu dituzten ekimenak; eta horren aplikazio-aldi osoak berretsi du gaitzespen eta beldur guztiak oinarrituta zeudela eta ondorio negatiboak hasiera-hasieratik agertu direla.

Lege horren ustez, hezkuntza ez da gizarte bidezkoago, libreago eta kohesionatuagoak eratzearen zerbitzura dagoen eskubide sozial unibertsal bat, ondasun partikularra eta etorkizuneko banakako inbertsioa baizik. Ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidearen eufemismoaren pean, ikasleen sailkapena eta bereizketa bultzatzen ditu, argi eta garbi zenbait talde sozialen interesekin eta gizarte sektorizatu eta estratifikatuko ereduarekin bat datozen irizpide "klasisten" arabera.

Lege horren bidez, gobernu eskuindarrek baliabide publikoak ikastetxe pribatuetarako erabiltzeko izan ohi duten joera finkatzen da, irakaskuntza publikoa zaindu gabe.

Izquierda-Ezkerrak uste du Nafarroako Gobernua LOMCEk, LOEren (Hezkuntzaren Lege Organikoa) indarreko artikuluek eta Foruaren Hobekuntzak ematen dioten curriculum- eta antolaketa-autonomia baliatzeko moduan dagoela, lege hori Nafarroan garatzen duen araudia curriculumari, lanaldiari, ordutegiari eta ebaluazioari dagokienez aldatzeko, LOMCEk ikasle, irakasle, familia eta irakaskuntza publikoan dituen ondorio negatiboak minimizatzeke asmoz.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaren eta antolamenduaren arloetan daukan autonomia balia dezan, LOMCE Nafarroan aplikatzeak irakaskuntza publikorako, ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat dakartzan ondorio negatiboak minimizatzeke.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitatez kanpoko

irakaskuntzako mailetak curriculumaren dekretuak eta eskola-antolaketari, lanaldiari, ordutegiari eta ebaluazioari buruzko araudia alda ditzan, Nafarroako hezkuntza sistema laikoagoa, ulerkeragoa, malguagoa eta irekiagoa lortze aldera. Curriculum eta horren garapena erabiliko dira bi helbururekin: guztien eskola-arrakastari laguntzea, ikasleen interesak eta gaitasunak errespetatuta eta bultzatuta; eta ikastetxeek hezkuntza-ekintza beren gizarte eta hezkuntza arloko testuingurura egokitzeko orduan duten autonomia hobetzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako irakaskuntza publikorako inbertsio-politika murriztaileen, LOMCEren aplikazioaren eta hezkuntzako inbertsio publikoa murriztu duten estatu legeen ondorioz azken urteotan irakaskuntza publikoan egon diren murrizketei amaiera eman eta lehengora itzultzen aurrera egin dezan, ordezkari sindikalekin negoziazio prozesu bat zabalduz Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Itun berri baten testuinguruan.

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna adierazten baitizkie O Porriñoko tren istripuan hil direnen familiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna adierazten dizkie O Porriñoko tren

istripuan hil direnen familiei, eta zaurituak lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen du.”

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak adierazten baitizkie Iraken hil den soldaduaren familiartekoei eta lankideei, eta zaurituak lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak adierazten dizkie Iraken hil den Aarón Vidal López soldaduaren familiartekoei eta lankideei, eta istripuan zauritu ziren Felipe Capa eta Jesús Ángel Alacid militarrek lehenbailehen sendatzeko nahia agertzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen ditu Espainiako Armadak misio humanitarioetan,

bakegintzako misioetan, terrorismoaren aurkako borrokan eta gizakiekin trafikatzan duten mafien aurka, besteak beste, egiten dituen jardura eta lan handia, baita Espainian dauden ere hainbat lanetan (adibidez, baso-suak itzaltzen) egiten duten lana ere. Horrez gain, gure mugen barnean zein horietatik kanpo lan egiten duten espainiar militarrei esker ona ematen die.”

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere ondoeza agertzen baitu zenbait foru legeren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak ebazteko denbora luzeegia behar izateagatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere ondoeza agertzen du Legebiltzar honek onetsi dituen zenbait foru legeren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak ebazteko denbora luzeegia behar izateagatik.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela Konstituzio Auzitegiak behar diren

baliabideak erabil ditzan Legebiltzar honek onetsi dituen zenbait foru legeren aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak ebazteko epeak zorrotz betetze aldera.

3. Adierazpen instituzional hau Konstituzio Auzitegira igorriko da Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzaren bitartez.”

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak azkenik egin ez zen Irudi Medikoaren Zentroaren proiektuari dagozkion 300.000 euro, gehi interesak, itzultzeko erreklamazioari buruzkoa.***KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak azkenik egin ez zen Irudi Medikoaren Zentroaren proiektuari dagozkion 300.000 euro, gehi interesak, itzultzeko erreklamazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin dugu Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak Nafarroako Gobernuari 300.000 euro –gehi interesak, 64.767 eurokoak– erreklamatu dizkiola azkenean egin ez zen proiektu bat dela-eta (Irudi Medikoaren Zentroa, egitekoan Lezkairun paratuko zena).

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Nola iritsi gara egoera honetara? Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen ditu erreklamazio hori dela-eta?

Iruñean, 2016ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, baja hartzea eragiten duten laneko istripuen tasak Foru Komunitatean gora egiteari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, baja hartzea eragiten duten laneko istripuen tasak Foru Komunitatean gora egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikita dagoen foru parlamentari Ainhoa

Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau eragiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

CCOO sindikatuak Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datu ofizialak baliatuz egindako azterlan baten arabera, baja hartzea eragiten duten laneko istripuen tasak % 15,39 gora egin du Nafarroan aurten, halako moduan non Nafarroa baita laneko istripuak gehien igotzen ari diren erkidegoa.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du gure erkidegoan baja hartzea eragiten duten laneko istripuen tasak gora egiteari buruz? Zer neurri hartuko ditu laneko istripuei aurrea hartzeko eta aurre egiteko, egoera lehengoratzeko helburu?

Iruñean, 2016ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Nafarroako enpresak Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko klusterretan sartzeari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako enpresak Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko klusterretan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2016ko ekainaren 20ko 118. NAO n argitaratu zen 677/2016 Ebazpena, ekainaren 3koa, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, kluster, prekluster eta enpresei elkarlanerako proiektuen gastuetarako diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena, eta irailaren 1ean bukatu zen eskabideak aurkezteko epea. Ekimen horri atxiki dakizkiokeen jarduketeta-lerroen artean dago D lerroa: "Nafarroatik kanpoko klusterrei atxikitzea."

Nafarroako Gobernuak zer helburu lortu nahi du Nafarroako enpresak Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko klusterrei atxikitzea sustatuz?

Iruñean, 2016ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak zergatik esleitzen du telebista-lizentzia bat lehia-keta publikora atera gabe, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorreko 27. artikulua ezartzen duen legez?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, asilo-eskatzaileen etorrera azkartzeko zuzemenei buruzkoa.

MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, asilo-eskatzaileen etorrera azkartzeko zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion

Sei hilabete igaro dira Gobernuari galdetu genionetik ea berak nahiz Gobernu zentralak zer zuzemen egin dituzten asilo-eskatzaileen etorrera azkartzeko. Geroago adierazi zitzaigun bilerak egin zirela beste autonomia erkidego batzuetako ordezkariekin, baterako jarduketak koordinatze aldera. Harrezkero ezin izan dugu aldaketa handirik ikusi; beraz, aintzat hartuta pertsona horien egoeraren larritasuna, eta negua hasi baino lehen, honako hau jakin nahi genuke:

Zertan dira beste autonomia erkidego batzuekiko zuzemenak, gobernu zentrala presionatzen jarraitzeari begira asilo-eskatzaileen etorrera azkartu dezan? Gai hau jorrazteko elkarrizketarik egon al da azken hileotan Madrileko gobernuarekin? Nafarroara asilo-eskatzailek laster etortzeari buruzko aurreikuspenik ba al da?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

Galdera, azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jada zazpi urte igaro dira Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea onetsi zenetik.

Zein da azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legeak orain arte izandako betetze-maila? Zer egutegi darabilzue legea erabat garatzeari eta betetzeari dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, martxoaren 14ko 8/2011 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko 8/2011 Foru Legea 2011ko martxoaren 24an onetsi zen.

Zein da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legeak orain arte izandako betetze-maila? Zer egutegi darabilzue legea erabat garatzeari eta betetzeari dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen betetze-mailari eta haren egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepre-sioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoak, sakoneko aldaketa eta bultzada ekarri zituen memoria historikoari buruzko politikari dagokienez.

Zer betetze-maila izaten ari da 33/2013 Foru Legea? Zer egutegi darabilzue legea erabat garatzeari eta betetzeari dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko

Galdera, Konstituzio Auzitegiak 16/2015 Foru Legetik baliogabetu ez dituen artikulua garatzeko eta betetzeko egutegiari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Konstituzio Auzitegiak 16/2015 Foru Legetik baliogabetu ez dituen artikulua garatzeko eta betetzeko egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak errekurtsio bat jarri zuen Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka. Konstituzio Auzitegiak, halere, ez zituen zenbait artikulua baliogabetu.

Zer egutegi dago Konstituzio Auzitegiak 16/2015 Foru Legetik baliogabetu ez dituen artikulua garatzeko eta betetzeko?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, 5/2010 Foru Legea garatu edo/eta aldatzeari, bere betetze-mailari eta egutegiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 5/2010 Foru Legea garatu edo/eta aldatzeari, bere betetze-mailari eta egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irsgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legeak berekin ekarri zuen beste logika batekin ulertzea eta hartzea irsgarritasuna. Irsgarritasunaren garrantzia ikusita, lehen aldiz hartu zen giza eskubideen beste faktore bat bezala.

Gobernuak zer aurreikuspen darabil 5/2010 Foru Legearen garapenari edo aldaketari dagokienez? Zein da orain arteko garapen-maila? Ba al dago egutegirik lege horren erabateko garapenari eta betetzeari dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen betetze-mailari eta egutegiari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen betetze-mailari eta egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko Marisa de Simón Caballero foru parlamentari andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea dela-eta:

Gobernuak zer aurreikuspen darabil apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen garapenari edo aldaketari dagokienez? Zer egutegi darabil legea erabat garatzeari eta betetzeari dagokienez?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egoerari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2016ko maiatzaren 18an, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak aho batez onetsi zuen mozio bat, Gobernuari sostengua ematen dioten eta horren kide diren hiru parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteak aurkeztutakoa. Honako hau zioen, hitzez hitz:

«1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean azterlan fidagarri bat presta dezan Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egungo egoerari eta ikastetxe berri bat eraiki ala ez eraikitzearen komenigarritasunari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du instalazioen egoera asumitu eta berma dezan, Beriaingo ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez.

3. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen dugu erabakitzen dituen jarduketaren egutegia ezar dezan.»

Epe hori igarotakoan, Hezkuntza Departamentuak honako galdera hauei idatziz erantzutea nahi dugu:

1.- Prestatu al du departamentuak txosten hori? Zein egunetan?

2.- Zein izan dira txostenaren konklusioak?

3.- Jarduketaren bat egin al du ikastetxe horretan, egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez instalazioen egoera duina bermatzeko, mozioak adierazten zuen bezala?

4.- Ikastetxe horretan aurreikusi dituen jarduketaren egutegia ezarri al du?

Corellan, 2016ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, ospitaleko hezkuntza-arretan ikasturtea hasteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ospitaleko hezkuntza-arretan ikasturtea hasteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Ikasturtea hasita dago Nafarroako zenbait ikastetxetan, eta hurrengo egunotan hasiko da Foru Komunitateko gainerakoetan, eta orobat Hezkuntza Departamentuak ospitaleratuta dauden haurrentzako hezkuntza-programa berriazko bat daukan ospitaleetan. Hezkuntza Departamentuko arduradun berriak ere beren karguetan hasiko

dira, departamentu horretako arduradun ia guztiek bizi izan duten "garbiketaren" ondoren.

Hezkuntza Departamentuko arduradunen kargu-uzte horiek gehien ukitutako arloetako bat Dibertsitaterako Zerbitzuarena izan da.

Ospitaleko hezkuntza-arretak ere ez du izan, antza denez, hasiera onik.

Ez da gertatu beste ikasturte batzuetan bezala, non dena baitzegoen prest, irakasleak beren lanpostuetan, kontusailak gaurkotuta, ikasgelak atonduta, eta abar.

Hori gutxi balitz, obrak eginen omen dira Ospitaleguneko Pediatriako laugarren solairuan, eta horrek kalte handiagoa ekarriko du hain bereziak diren haur horien hezkuntza-arretari begira.

Hori guztia dela-eta, Hezkuntza Departamentuak honako galdera hauei erantzutea nahi dugu:

1.- Ospitaleko hezkuntza-arretan ikasturtearen hasieran zergatik ez dira jarraitu aurreko urteetako jarraibide berberak?

2.- Noiz hasiko da ikasturtea, aurreko urteetako baldintza beretan, ospitale horietan?

3.- Egia al da Pediatriako solairuan obrak egiten direla? Obra horiek zer eragin izanen lukete ospitaleko hezkuntza-arretan? Departamentuak zer aurreikuspen darabil balizko egoera horri begira?

Corellan, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Udalaren Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Udalaren Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2014ko ekainaren 9an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako Udalak "Fernando Remacha" udal musika kontserbatorioaren kudeaketa eta finantzaketarako. Hartan, lankidetzarako baldintzak ezartzen dira, batetik musikako lanbide-irakaskuntzaren arloko hezkuntza zerbitzuaren prestazioan funtzionamendu egokia bermatzeko eta, bestetik, 2014-2016 aldirako diru-laguntza bidezko finantzaketa zuzenerako. Hitzarmen hori, hortaz, aurten –2016an– amaitzen da.

Hitzarmenaren hirugarren klausulan jasotzen denez, Hezkuntza Departamentuak azterlan bat egingen du Tuterako "Fernando Remacha" udal musika kontserbatorioaren finantzaketari, kudeaketari eta zerbitzuari buruz, hitzarmenak dirauen epean, kudeaketa-modua edo finantzaketa-formula hobetzeari buruzko proposamenak aztertu eta egiteko.

Foru parlamentari honek Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenei buruz 2015ean aurkez-

tutako ekimen bati emandako erantzunean, Departamentuak adierazi zuen Lankidetzaren Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearekin bildu zela eta Tuterako Udalak adierazi zuela bere asmoa zela auzi hori aztertuko duten txosten teknikoak 2016ko maiatzean egotea. Halatan, Hezkuntza Departamentuak orduan adierazi zuenez, hirugarren klausulan aipatutako gaiak aztertzeko, analizatzeko eta baloratzeko lanetan sartuta dago, eta lan horien xedea da 2017tik aurrera Nafarroako Erriberan musika-irakaskuntzak finkatzea eta garatzea bideratuko dituen eredu bat aurkitzea.

Halaber, 2016ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuak UPNren mozio bat onetsi zuen, zeinetan Nafarroako Gobernuak premiaturik baitzuen Tuterako Kontserbatorioari irakaskuntzen ehuneko ehun finantzatu ditzan 2017ko aurrekontuetatik aitzina, eta Tuterako Udalarekiko negoziazio-prozesu bat ireki dezan, kalitatean eta egonkortasunean oinarritutako irizpideekin, Tuteran goi mailako musika-irakaskuntzak garatze aldera, Fernando Remacha Kontserbatorioari behar diren azpiegitura eta baliabideak emanaz.

Hori guztia dela-eta, honako galdera hauei idatziz erantzutea nahi dugu:

1.- Hezkuntza Departamentuak prestatu al du Tuterako Udalarekin sinatutako hitzarmeneko hirugarren klausulan jasotzen den azterlana? Noiz ezagutaraziko du azterlan hori?

2.- Hezkuntza Departamentuak zer harreman izan du Tuterako Udalarekin auzi hori jorratzeko?

3.- Ireki al du Tuterako Udalarekiko negoziazio-prozesurik, Tuteran goi mailako musika-irakaskuntzak kalitatean eta egonkortasunean oinarritutako irizpideekin garatzeko? Zer ondorio-tara iritsi da?

4.- Tuterako Kontserbatorioari irakaskuntza ehuneko ehun finantzatuko al ditu, Parlamentuak premiaturik bezala?

5.- Zein da aurrekontu-aurreikuspena?

Corellan, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Ederbidea izeneko proiektuari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Ederbidea izeneko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen beza-

la, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Berriki Ederbidea izeneko proiektua aurkeztu da, Baiona, Iruñea eta Donostia bizikletaz lotuko dituen egitasmoa, hain zuzen ere. Proiektuak Interreg Poctefa Europako programaren laguntza jaso du, eta Nafarroako Gobernua ere tartean da, sustatzaileetako bat baita, beste zenbait erakunde eta entitateekin batera. 240 kilometroko ibilbidea osatuko du proiektu horrek, eta bide horretan euskararen biziraupenerako eta garapenerako ezinbestekoak eta funtsezkoak diren arnasguneak zeharkatuko ditu, besteak beste. Ibilbideak, ezinbestean, errotulu, panel edo kartel bidezko seinalizazio bat ekarriko du berarekin.

– Finkatuta edo adostuta al daude seinalizazio horretarako hizkuntza irizpideak?

– Zein izanen da euskararen presentzia Ederbidea proiektuko seinalizazioan?

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionaleri buruzkoa.

GALDERA IDATZI BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Mónica Domenech Linde andreak aurkezturiko idazkia ikusita, non eskatzen baitu galdera idatzi bihurtzea Osoko Bilkuran erantzuteko aurkeztu zuen ahozko galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionaleri buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela galdera idatzi bihurtu dela Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionaleri buruzko ahozko galdera, zeina 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du “Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruz (9-16/PES-00253). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako lehendakariordearen erantzuna:

“Enplegurako lantegi-eskolak eta sustapen eta garapeneko unitateak” programa Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 15eko 388/2013 Ebazpenean araututa dago. Ebazpen horretan aurreikusten da programak 6 eta 18 hilabete bitarte irautea. Horrenbestez, urte anitzeko gastu bat da, bi aurrekontu-ekitaldi bitarte har ditzakeena.

“Enplegu Plana. Prestakuntza eta Enplegu Programa Mistoak” izeneko kontusailaren hasierako kreditua 3.888.216 eurokoa zen. Kreditu horretatik, 2.737.776,53 euro aurreko aurrekontu-ekitaldietan baimendua zen:

- 473.098,67 euro 2013ko deialdiaren bitartez betetako programei zegozkien;

- 2.264.677,86 euro, berriz, 2014ko deialdiaren bitartez betetako programei zegozkien.

Horrenbestez, 2015eko deialdirako erabilgarri dagoen kreditua 750.439,47 eurokoa da, zeren eta 400.000 euro erabili baitziren Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 23ko 1325/2015 Ebazpenaren bidez onetsitako diru-laguntzen deialdirako; hain zuzen ere, gazteen bermearen sisteman izena emandako gazteentzako enplegurako lantegi eskoletako programei zuzenduta zegoen.

Martxoaren 15eko 388/2013 Ebazpenaren bitartez onetsitako diru-laguntzak 594.601,76 eurokoak izan ziren. Inongo proiektutarako laguntzarik ez zen ukatu aurrekontuan dirurik ez egoteagatik; izan ere, gutxieneko puntuaziora ez iristea-gatik ukatu ziren edo/eta baztertu ziren baldintzak ez betetzeagatik.

Ekainaren 23ko 1325/2015 Ebazpenaren bitartez onetsitako diru-laguntzak 168.339,21 eurokoak izan ziren. Kasu honetan, proiektu baterako laguntza ukatu zen 2016. urtean aurrekontuan dirurik ez egoteagatik.

Horrenbestez, bi deialdiak onetsi ondoren, 387.498,50 euroko kreditua geratu zen erabilgarri, eta guztira 3.500.717,50 euroko zenbatekoa hartzartu zen.

Halaber, aurreko deialdi-espeditenteak likidatu ondoren, honako zenbateko hauek ez zitzaizkien entitateei ordaindu exekuzio falta zela-eta edo/eta diru-laguntzaren justifikazioa falta izateagatik, eta ondoko zenbatekoak liberatu ziren:

ESPEDIENTEA	PROGRAMA	LIBERATUA	EBAZPENA
31/00002/13	PARQUE DE ARANZADI enplegurako lantegi-eskola	50.347,02	2015/12/16
31/00004/13	VIII ILUNDAIN-VALLE DE ARANGUREN enplegurako lantegi-eskola	123.459,55	2015/12/11
31/00006/14	RIBERA ALTA enplegurako lantegi-eskola	9.348,43	2015/12/16
31/00017/14	LIMPIEZA INDUSTRIAL enplegurako lantegi-eskola	2.646,83	2015/12/16
31/00019/14	AGRICULTURA ECOLÓGICA Y JARDINERÍA enplegurako lantegi- eskola	8.736,14	2015/12/16
31/00020/14	GASTRONOMÍA NAVARRA TRAS EL ARTE Y LA CULTURA enplegurako lantegi-eskola	18.210,34	2015/12/16
31/00022/14	SAKANA ANIMATIKA 3D enplegurako lantegi-eskola	10.741,29	2015/12/16
31/00025/14	NAVARRA DE INAFRE IV sustapen eta garapenerako unitatea	72.281,93	2015/10/20
		295.771,53	

Horrenbestez, zenbateko hori hitzartutako kreditutik (3.500.717 euro) kenduz gero, emaitza amaieran betetako kreditua da (3.204.945 euro).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta era-

gile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruz (9-16/PES-00254). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onesten dituen abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretuaren bitartez erakunde horren osiera, funtzionamendua eta eskudantziak aldatzen dira. Zuzendaritza Kontseiluari esleitutako eskumenei dagokienez, aipatu beharra dago erakundearen aurrekontuak onesteko ahalmena kentzen dela, bai eta lankidetzaren hitzarmenak onesteko ahalmena ere (eskumen hori Kontseiluari esleitu zitzaion Estatutuak 2014ko abenduan aldatu ziren arte). Gainera, Administrazioak ordezkatzeko duen interes orokorraren nagusitasu-

na ezartzen da, Kontseiluan adostasunik lortzen ez bada.

Beraz, iragan den legegintzaldian, lankidetzahitzarmenak eta gastu-aurrekontua aurrez Gobernu Kontseiluak onesten zituen; hori dela eta, teknikarien gaitasuna askoz ere mugatuagoa zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, enplegu agentziek hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu agentziek hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du enplegu agentziek hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruz (9-16/PES-00255). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Ekimen parlamentarioan aipatzen den bezala, 2016. urtean sindikatu-erakundeek eta NL-NEZak sinatutako lankidetzahitzarmenek jasotzen dute programa horietarako parte-hartzaileen hautatzea eta hartzea erakunde horrekiko lankidetzan eginen dela. Gaur egun honako lankidetzahitzarmen hauek baizik ez dira sinatu sindikatu-erakundeekin, eta guztiek jasotzen dute aurreikuspen hori:

- UGTrekiko hitzarmena, kolektibo ahuletako pertsonekin ekintza banakatuak egiteko.

- UGTrekiko hitzarmena, laneratzeko orientazio-ekintza banakatuak egiteko.

- CCOOrekiko hitzarmena, atzerrian jaio eta Nafarroan bizitokia duten pertsonen informazio-,

aholku- eta gizarteratze- zein laneratzeprogramak egiteko.

- CCOOrekiko hitzarmena, enplegarritasun-ibilbideak egiteko.

Hala eta guztiz ere, 2015ean sindikatu-erakundeekin izenpetutako hitzarmen guztietan ez zen aurreikuspen hori jasotzen. Hurrengo hitzarmenek ez zuten horri buruzko inongo aipamenik jasotzen:

- UGTrekiko hitzarmena, etorkinentzako prestakuntza-, gizarteratze- eta laneratzeprogramak egiteko.

- CCOOrekiko hitzarmena, etorkinentzako, informazio-, prestakuntza-, aholkularitza- eta gizarteratze zein laneratzeprogramak egiteko.

- UGTrekiko hitzarmena, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programak egiteko.

- CCOOrekiko hitzarmena, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programak egiteko.

- UGTrekiko hitzarmena, bitasunaren aurkako ekintzak egiteko, enpleguaren egonkortasunerako planaren barruan.

- CCOOrekiko hitzarmena, enpleguaren egonkortasuna sustatzeko neurriak egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2016ko eztabaida dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznarez Igarza

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2016ko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzartearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, salbu eta Gobernuak lehendakariaren inbestidura-eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean, Legebiltzarreko Osoko Bilkura berezia eginen da erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko.

Artikulu horren lehen idatz-zatian adierazten denez, Nafarroako Gobernuak erkidegoko politika orokorrari eta egoerari buruzko komunikazio bat igorri ahalko du Parlamentura, osoko bilkura horretan eztabaidatzeko.

Legealdiaren lehen urtea amaituta, Parlamentuko taldeek Gobernuaren ekintza ebaluatzeko baliatuko dute eztabaida, eta Gobernuak, aldiz, hurrengo aste eta hilabeteetan garatu beharreko lan-ildoan eta jarduketan berri emateko.

Legealdiko lehen urte honetan aldaketa instituzional sakona eta lasaia gertatu da, Nafarroako Parlamentua osatzen duten zazpi indarretako lauk itunak egiteko eta akordioak lortzeko izan dugun gaitasunaren eskutik etorri dena. Hain zuzen ere elkarrizketari eta negoziatioari esker lortu zen akordio programatikoa, Gobernuaren ekintza eduki politikoaz bete duena.

Beraz, edukiz betetako akordio sakon bat dugu, Nafarroan gobernu tinko eta egonkorra eratzeko aukera eman duena. Gobernuaren ekintza nekez gauzatu zitekeen egonkortasunik gabe, gobernu honek jabetza hartu zuenean egoera zailari egin behar izan baitzion aurre, 3.500 milioi euro inguruko zorra oinordetzan jaso ondoren, BPGaren %18,20 alegia. Eta, horrekin batera, zenbait konpromiso ere bai, lehendik ezagunak batzuk, Gobernuak lehen urte honetan aurkitu dituenak beste batzuk, kontu publikoetan garrantziko ondorioak izan dituztenak.

Zalantzarik gabe, Gobernuaren jarduteko aukerak baldintzatu ditu egoera honek, egiturazko arazoei aurre egin behar izan dielako: langabezia tasa oso altuak, pobrezia larriaren igoera esponentziala 2014a arte, itxoin-zerrenda onartezinak osasun sistema publikoan, osasun arreta jasotzeko eskubide unibertsalaren kontrako mehatxuak, edo lurralde desorekak eragindako arazoak.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak ekintza sorta bat jarri du abian aurtan, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan isla garbia izan dutenak. Kontu publikorik gabe hiru urte iragan ondoren, lehen urte honetan Foru Gobernuak aurrera atera zituen aurrekontuak, lehentasunetan aldaketa nabarmena eginda, horretarako eragozpen handiak izanagatik ere, besteak beste aurrekontu egonkortasunak, defizitak, gasturako mugak, zorraren kargak edo lehendik hartutako konpromisoek baldintzatu zegoelako.

Aurrekontu horien ardatzak hiru izan ziren: gizatalde pobreenen eskubide sozialak berma-

tzea, enpleguaren sorrera bermatzea, krisiak zigortutako eskualdeei arreta berezia emanez, eta zerbitzuen kalitatea hobetzea osasun eta hezkuntza arloetan. 2017rako aurrekontuek berretsi eginen dituzte konpromiso horiek.

Aurten landu beharreko proiektuen artean, zerga erreformari heldu beharra zegoen, batez ere orain, finantza eskasia dagoela begi bistakoa denean. 2010-2015 urteetan, Foru Komunitateak finantzaketarako gaitasuna galdu du, 771 milioi euro ingurukoa, hau da, Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 20 adinakoa, hainbat arrazoiengatik, hala nola, Estatuaren ekarpenaren igoera, zor publikoaren interesak ordaindu beharra, eta gehieneko defizitaren jaitsiera.

Zerga erreforma hori fruituak ematen hasia da eta egunetik egunera gero eta agerikoagoa da behar-beharrezkoa zela, are gehiago jakin dugunean Nafarroan diru-sarrerek %5 egin dutela gora eta Estatuan, berriz, dirusarrerek behera -%18 lehen 7 hilabeteetan-, eta defizitak gora -BPGaren %2,66raino-.

Ekonomian, halere, hiru urte krisi larrian hondoratuta egon ondoren, bizkortzearen zantzuak agertzen hasi direla dirudi. Nafarroako ekonomia %3 hazi da, eta, aurreikuspenen arabera, urte hasieran egindako prebisioarekin bat etorriko da hazkundera 2016aren amaieran: %2,9-%2,8. Azken hilabeteetan hazkundera pittin bat apaldu dela atzeman bada ere, etorkizun hurbila positiboagoa izanen dela aurreikusten da, faktore bat baino gehiago tartean direla: urteko lehen sei hilabeteetan izandako hazkundera aurreikusitakoa baino 2 hamarren handiagoa izan da; kontsumo maila altuak ekonomiari tira egiten dio; eta esportazioak eta industria oro har, hobetu egin dira.

2015eko uztailean, egungo Gobernuak jabetza hartu zuenean, Nafarroan 42.330 langabe zeuden. Esku artean ditugun azken datuen arabera, berriz, langabeen kopurua orain 38.899 da, zazpi urtean lehen aldiz 40.000tik behera dagoen kopurua, eta horrek esan nahi du azken urtean %6,87ko jaitsiera gertatu dela. Zifra horiek erakusten dute enplegua berreskuratzen ari dela, joera positiboa dela baina, aldi berean, bide luzea dugula oraindik egiteko.

Datu horiek akuilu dira Gobernuarentzat aurrera egiten segitzeko, batetik, langabeziaren zifrak jaisteko, enplegu politika aktiboen aldeko apustua indartuz, eta, bestetik, enpleguaren ikuspegitik, kalitate handiagoko lanpostuak sortzeko, hau da, mugagabeko kontratazioarekin lotuta egon ohi direnak.

Legealdiko lehen urte honetan, Nafarroako Gobernuaren erronka nagusietako bat krisiaren ondorioei aurre egitea izan da, baina argi edukita errekonferazio ekonomikoa eraginkorra izanen dela baldin eta justizia sozialarekin konprometitua bada, eta Nafarroako garapena kohesio sozialarekin lotua. Ildo horiei jarraikiz, Nafarroako Gobernuak errenta bermatuari buruzko lege proiektua egin du, eta bertan jaso du diru-zenbatekoen hobekuntza eta onuradunen kopurua handitzea -2.800 onuradun gehiago-; larrialdi sozialerako eta etxegabetzeen prebentziorako laguntzen kopurua bikoiztu du; eta mendekotasunerako laguntzak ere hobetu ditu, 10.000 pertsona gehiagok har ditzaten.

Lehen urte honetan, Nafarroako Gobernuak osasun arretarako eskubidea unibertsala izatea bermatu du, biziaren autobusaren finantzaketa berreskuratu du eta 2017an Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeak zati batean sektore publikora itzultzea erabaki du.

Hezkuntzan, legealdiko lehen urte honetan, bost urte iragan ondoren, EPE baterako deialdia egin da, maisu-maistren 200 lanpostu hornitzeko; ikasleen ratioak 25ekoak dira berriz haur eta lehen hezkuntzan, IIP programa berrikusi eta hobetzeko urratsak egin dira, eta D ereduia Nafarroa osora zabaltzeari ekin zaio.

Gure inguruarekiko harremanei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Nafarroa Akitania-Euskadi Euroeskualdean berriz sartzeko prozesua bultzatu du eta Europar Batasunaren aurrean jarduteko plan estrategiko bat egin du.

Leialtasun instituzionaletik abiatuta, baina gure autogobernuaren defentsa irmoari eutsiz, Nafarroako Gobernuak berebiziko garrantzia duen erronka bat du orain: bosturteko ekonomikoa berrirako oinarri urtetzat 2015. urtea hartzea, ikusirik gai hau geroratzen ari dela Estatuako egoera politiko eze-gonkorragatik, egungo gobernuaren bitarteko izaera luzatzen duelako. Ezbairik gabe, Madrilén gertatzen ari den blokeo egoerak eta akordioak lortzeko gaitasun faltak Estatuan gobernurik ez izatea eragin dute, eta, horren ondorioz, bi administrazioen arteko harremanak kaltetzen ari dira, eta trabak sortzen Foru Gobernuaren zenbait arlotako eguneroko funtzionamenduan.

Adierazitako gaiei eta beste batzuei buruz eztabaidatzeko, Nafarroako Gobernua jarrera irekiarekin joanen da Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidara, Parlamentuko indarrek egiten dituzten ekarpenei adi eta horiek jasotzeko prest, Nafarroako ongizatea eta aurrerakuntza xede

dituzten ekinbide guztietan kontsensusa eta akordioa gailenduko direla sinetsita.

Horrenbestez, jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duela Nafarroako Parlamentuan Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidari bide emateko.

Iruñean, 2016ko irailaren 7an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Uxue Barkos Berruezo
